

## ***EDT Topaketa - Dantza, Terapia, Mugimendua eta Osasuna.***

***2022ko irailak 3 larunbata.***

***Victoria Eugenia Antzokia. Donostia***

### ***1. Praktika.***

***Dantza mugimendu terapia, hurbilketa laburra.***

***Emalea: Mugi Dantza Mugimendu Terapiak.***

Gorputzaren eta emozioaren arteko lotura eta sinbolikotik hitzera eramateko aukera aztertuko dugu. (gorputza-adimena-emozioa).

Dantza Mugimendu Terapia espezialitate psikoterapeutikoa da, eta gorputza eta haren hitzik gabeko adierazpenak erabiltzen ditu pertsonaren integrazio emozionala, kognitiboa eta fisikoa sustatzeko prozesu baten barruan.

*Mugi, ADMTE-k (Dantza Mugimendu Terapeuten Espainiako Elkarte Profesionala) akreditatutako emakume talde batek sortzen du. Emakume talde honek ibilbide desberdinak ditu osasunaren munduan (Sikologia, Gizarte Lana, Soziologia) eta baita arteen munduan ere (dantza, musika, antzerkia).*

### ***2. Praktika.***

***Dantza presentzia. Emalea: Sirah Badiola.***

Dantza presentzia, Feldenkrais metodoaren eta Sirah Badiolak dantza garaikidearekin duen esperientziaren arteko sinbiosi bat da. Dinamika honetan mugimendua sortzen duten gorputz-egoerak eta perspektibak aztertzea proposatzen da.

*Sirah Badiola*

*Psikologoa, Feldenkrais Metodoaren irakaslea, Dantza Presentzia-ren sortzailea eta Dantzari Garaikidea.*

### ***3. Praktika.***

***Esperientziaren zikloa. Emalea: Miren Saralegi.***

Praktika honetan esperientziaren zikloaren saio bat landuko dugu.

Esperientziaren zikloa hasten da organismoak, atsedenean dagoela, bere baitan beharrezkotasunen bat sortzen dela sentitzen duenean; subjektuak horren kontzientzia hartzen du eta bere espazioan hura asetzen duen elementu edo objekturen bat identifikatzen du, hau da, osagai hori figura bihurtzen da, eta besteen gainera nabarmentzen da. Jarraian, organismoak bere energiak mobilizatzen ditu nahi duen objektua lortzeko, harik eta harekin kontaktuan jartzen den arte, beharra asetzen duen arte eta berriro atsedenean jartzen den arte.

*Miren Saralegi. Diziplina anitzeko bideratzailea eta dantza mugimendu terapeuta. Dantza Integralaren Eskolako hezitzailea eta sortzaileetako bat.*